

## LOIOLAKO JARDUNAK

1981-I-23/24

Fr. L. Villasante

Hasierako hitzak

Jaunak: Agur eta egun on!

Hemen, Loiolako Gogarte-etxe honetan, bildu gara Euskaltzaindiko barne arazoak sosegu piska batekin aztertzeko, eta ahal den neurrian beroiei irteera emateko. Beste hitzez esanik, gure egiturak gaurkotzeko, eta heldu diren bi urtetarako lan plan baten hari nagusiak edo lerro nagusiak taxutzeko.

Igarotako urteetan neronek bakarrik (bati edo besteri zenbait gauzatan aholku eskatuz) antolatzen nuen honelako plan bat. Bi urtetarako euskaltzainburu hautatzen nindutenean, txosten bat egiten nuen gure egoerari, beharrei, asmoei eta abar gain-begiratu bat egotziaz eta halako lan plangintza bat eskeiniaz.

Ikus *Euskera*:

“Epe berri baten aitzinean” (1973), 230.

“Datorren urtebikoari begira” (1975), 461.

“Urtebikoaren plangintza” (1977), 222.


Beraż, ahal nuen moduan, txosten horietan lan plan bat eskeintzen nuen. Gero, egia esan, erdizka betetzen zen. Gaitz bat zuten beharbada plan haiek: batek bakarrik egiten zituela, baina beteko baziren, bestean lankidetzaren behar zen. Oraingoan, huts hori erremediatzeko, bestela jokatzeari pentsatu dugu: plana egitean ere nolabait denok parte har dezatela, alegia.

Gogora datorkit Oñatin gertatua. Alkateak (ez oraingoak) obra batzuk egin zituen, eta gero, horiek pagatzeko, jendea zerga berezi bat bota zion. Norbaitek honela esan omen zuen: “Arraioa! Asmaitteko heu bakarrik, eta pagaitteko gu guztiok?”.

Hau gerta ez dadin, eta, noski, aunitzen begiek bakar batenak baino gehiago ikusten dutelako, oraingoan bestela jokatzeari pentsatu dugu. Denok

patxadaz bilduz, hartarako astia hartuz, geure egiturak, batzordeak eta abar bana-banaka aztertuko ditugu, zer hobetu edo aldatu behar den ikusiz, eta plangintza orokor baten lerro nagusiak marraztuz. Plangintza konkretoagoak eta zehaztuagoak gero batzorde bakoitzak egingo ditu, hemen hartutako bide nagusien arabera.

Beraz, egun hauek gure egiturak zertan hobe daitezkeen ikusteko dira. Denen artean ikusteko, alegia. Batzorde batzuk beharbada gaur zaharkituak daude edo horien beharrik gaur ez da; beste batzorde batzuetan aldaketak egitea komeni dela ikustea gerta daiteke; batzorde berriren bat sortu beharra ere bai.



Loiolako Jardunak (Loiola, 1981-I-23/24), J. Haritschelhar eta R. Badiola

Eta ikusten denaren arabera egingo dugu. Egia esan, batzordeen eraberitze orokorra egin zenetik ez da denbora asko igaro: urte pare bat. Ikus *Euskera*:

“Euskaltzaindiko batzordeen bir-antolaketa” (1979), 75-86.

Hala ere, denbora berriek erantzunkizun berriak eta larriak dakarzkigute. Eta horrek geure egoeraren ber-ikuste hau egitera behartzen gaitu. Eta lan plangintza orokor bat denon artean taxutzera ere bai, gero plan hori zehatzago batzorde bakoitzak bere aldetik xehetasun gehiagoz gorpuztuko badu ere.

Horretaz gainera, Barne-Erregeletan zer aldatu edo gehitu behar den ere aztertu eta erabaki behar dugu. Neurri handi batean hileroko batzarreetan hau egin da; beraz, gaia aski umotua dago; baina azken erabakia hartu behar da.

Horra zein izango den egun hauetako lana.

Badakizue nola, orain urte t’erdi, hasi ginen (Foruko komentuan, hain zuzen) Jardun batzuk egiten, Euskaltzaindiko barne arazoak guztion artean eztabaidatu, eta ditugun ahulezia eta ajeen sendabidea bilatzeko. Ikus *Euskera*:

“Foruko Jardunak” (1979), 825.

Oraingo hauek ere haien jarraipen edo segida izan nahi dute.

Izango ahal da dena gure Euskaltzaindi hau emankorrago, eta duen xedea bete dezan trebeago bihurtzeko! Halabiz.